


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Santos Sarasola Zelaia

*Donostia,
Gipuzkoa
(1945)*

Aurkibidea



Biografia



Amara Zaharrea jaioa. Gurasoak Albizturkoak zituen, bizitzera Donostiara joandakoak: aita gas lantegian egiten zuen lan. Asilo San Jose ikastetxean egin zituen lehen ikasketak Santosek, eta 11 urtetik 22ra Donostiako seminarioan egon zen fraidegai. Giro erdaldunaren ondorioz umetan ikasitako euskara galtzen joan zen, baina euskaltzaletasunak eraginda, berreskuratu egin zuen (EUTGn, Patxi Altunarekin, eta bere kabuz). Filosofia ikasketak egin zituen, eta Santo Tomas lizeoan hasi zen lanean, irakasle moduan. Bertako zuzendari izan zen hainbat urtean. Easo abesbatzako presidentea ere izan zen. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

DON-208

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-07-02
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Umetako lanak: meza laguntzen eta txerri-jana biltzen

- **Erref:** DON-208/003
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Guraso oso onak zituen. Umetan lan asko egiten zuen Santosek; batetik, eskolako mojen goizeko mezan laguntzen aritu behar izaten zuen hiru astean behin, astebetez. Donostian orduan ia argirik ez zen egoten. Gas lantegian

aritzeaz gain, txerriak hazten zituen aitak, ondoren saltzeko; beraz, bere kaleko etxeetan txerri-jana biltzen aritzen zen Santos. Bere osaba batek baserri bat zeukan eta sail handi bateko zatia eta txabola aitak erabiltzen zituen.

2. Euskara galdu eta hamazazpirekin berreskuratzen hasi

- **Erref:** DON-208/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gurasoek txikitan euskaraz egiten zioten baina ez dauka gogoan. Erdaraz egiten zuen eskolan eta kalean eta hamazazpi urterekin hasi zen euskara berreskuratzen. Patxi Altunarekin aritu zen ikasten, ondoren bere kabuz eta azkenik lizeoan aritu zenean, euskaraz besterik ez zuten egin.

3. Euskalduntzen lagundu ziotenak: lagunak, Ez dok Amairu eta euskarazko mezak

- **Erref:** DON-208/005
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Seminarioan ez zieten euskara askorik ematen. Bere ikaskide eta lagun-minak herri txikietatik etorritako euskaldunak ziren. Ipuin mitologikoak haiekin ikasi zituen, eta Jesus Mari Mujikarekin euskara lantzen hasi zen. Euskal kanten oroimena bazeukan. Garai hartan Ez Dok Amairu hasi zen eta oso zalea zen Santos. Meza euskaraz jesuitetan bakarrik egoten zen eta Patxi Altunak ematen zuen. Zenbaitetan polizia egoten zen kanpoan.

4. Santo Tomas lizeoa martxan

- **Erref:** DON-208/008
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1960an hasi zen Santo Tomas lizeoa martxan. 1971n hasi zen Santos bertan lanean; orduan hasi zen indartzen.

5. Lehenengo andereñoen eta bere alfabetatzea

- **Erref:** DON-208/009

- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Lehenengo ikastoletako hainbat andereño ezagutu zituen: Karmele Esnal, Forcada, Pasaiake beste bat... Seminarioan zegoen garaian ezagutu zituen batzuk, Karmele, besteak beste. Lazkaotar bat zen, Fernandez abizenekoa, andereñoen alfabetatzeaz arduratzen zena orduan. EUTGn klaseak hartu zituen eta ondoren bere kontura ikasi zuen. Lizeoan egin beharra zeukanez, ikasi egin zuen.

6. Santo Tomas lizeoa sorreran

- **Erref:** DON-208/010
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:19:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Lizeoaren sortzaileak aipatzen ditu: Karlos Santamaria, Jose Migel Zumalabe eta Koldo Mitxelena. Hasiera ez zen oso indartsua, euskaltzaletasunaren ikuspegitik, ordea, bai. Lizentziatuek hasieran ez zeukaten euskara maila handirik; andereñoek, oster, formazio handirik ez zeukaten baina normalean oso euskaldunak izaten ziren. Hasiera-hasieran Karmele Esnal zen tituludun bakarra.

7. Santo Tomas lizeoan, hasieran euskaraz eta erdaraz

- **Erref:** DON-208/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Lizeoan hasierako urteetan ezin zen euskaraz irakatsi, ikasleek azterketak kanpoan egin behar zituztelako eta gazteleraz zirelako. Heziketa fisikoa, euskara, eguneroko harremanak eta beste ezer gutxi egiten zuten euskaraz.

8. Eraikin prefabrikatua Ibaetan

- **Erref:** DON-208/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Hasieran Ibaetako Loistarain baserria erosi zuten, orain Zuzenbideko fakultatea dagoen gainaldean. Baserria bota eta prefabrikatu bat egin zuten, batxilergoko ikasleentzat. Urumearen aldamenean lokal bat alokatu eta txikienak han hasi ziren.

9. Lizeoko hasierako gurasoak eta lan-baldintzak

- **Erref:** DON-208/014
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:22:27. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Hasierako gurasoak euskaltzaleak eta antifrankistak ziren; ezkerraldeko mugimendu batekoak ere bai. Dena mendia zenez, gustura aritzen ziren umeak. 1972an 12.000 pezetako soldata zeukan, hogeita zortzi orduz klaseak ematen zituen, larunbatetan bilerak... Militantzia oso handia zen.

10. Nolatan hasi zen Santo Tomas lizeoan lanean

- **Erref:** DON-208/015
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:27:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Seminarioa utzi zuenean, filosofiako ikasketak egin zituen, urte batzuk Parisen emanek. Lan bila hasi zenean, hiru lekutan baiezkoa jaso zuen. Jesus Mari Mujikaren ondora joatea eta euskararen aldeko apustua egitea erabaki zuen. Bere bi alabak lizeoan ibili ziren eta bere soldataren zati handi bat lizeora joaten zen (gastuak aipatzen ditu).

11. Hasierako urteak Santo Tomas lizeoan

- **Erref:** DON-208/016
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:27:24. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lizeoan denetariko ikasgaiak ematen zituen: historia, literatura, latina, greziera... Hasieran zuzendari aritu zenean, ez zeukan aparteko laguntzailerik. Emaztea dena aguantatu duena emakume zoragarria izan dela dio. Aurrera egin dute kemenez eta adorez.

12. Santo Tomas lizeoaren lehen eraikina eta homologazioa

- **Erref:** DON-208/017
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:29:33. **Bukatu:** 00:31:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bera lizeoan sartu zenean, 1971n, Aieten egon ziren urtebetez. 1970eko hezkuntza legearen baldintzak oso gogorrak ziren. 1972an OHOk etxea inauguratu zuten eta horra pasatu ziren. Orduan lortu zuten homologazioa, eta horrek eman zien askatasun gehiago klaseak euskaraz egiteko.

13. Ikasmaterialak sortzen UZEIrekin eta ikastolen federazioan

- **Erref:** DON-208/018
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:31:51. **Bukatu:** 00:34:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikasmaterialak sortzen hasi ziren, ia ezer ez zegoelako. Apunteak egin zituzten hasieran, eta kopiak egin. UZEI sortu zenean, goi-mailakoen testuak egiten hasi ziren. Ikastolen federazioa sortu zenean, Txomin Agirre zen koordinatzailea. Federazioa handitu ahala, testugintza handitu egin zen.

14. Ikastolako, lizeoko eta Barandi ikastetxeko hasierako urteak

- **Erref:** DON-208/021
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:38:51. **Bukatu:** 00:42:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolako hasierako irakasleak aipatzen ditu. Batxilergoa abiatu zutenean, beraiek izan ziren lehenengo irakasleak. Barandi ikastetxearen sorrera kontatzen du.

15. Inspekzioak Santo Tomas lizeoan

- **Erref:** DON-208/022
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:42:42. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Lizeoan egiten zizkieten inspeizioak aipatzen ditu.

16. Greba giro gatazkatsua Santo Tomas lizeoan

- **Erref:** DON-208/024
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:46:38. **Bukatu:** 00:49:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikasleentzat grebak eta asanbladak deitzea onartuta zeukaten lizeoan, baldin eta deitzailea legezko erakundea bazen. Erabakiak arazoak sortu zizkion, bere kotxea erre nahi izateraino. Gerora, eskerrak eman izan dizkio ikasle batek baino gehiagok.

17. Ikasle batzuek kotxea erre nahi izan ziotenekoa

- **Erref:** DON-208/025
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:49:24. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikasle batzuek kotxea erre nahi izan ziotenekoa kontatzen du. Bilera egin zuten guraso guztiekin eta arazo horiek bukatu egin ziren. Gertaerok 90eko hamarkada inguruan gertatu ziren.

18. Santo Tomas lizeoan abesbatza, antzerki taldea eta dantza taldea

- **Erref:** DON-208/028
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:54:42. **Bukatu:** 00:57:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Kultura arloan, musika lantzen zuten eta abesbatza izan zuten; antzerkia ere lantzen zuten, Jose Ramon Soroizekin hasieran. Euskal dantzak ere egiten zituzten.

19. Easo abesbatzako presidente

- **Erref:** DON-208/030

- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:59:52. **Bukatu:** 01:02:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Easo abesbatzak eraikina berritzeko egindako zorra kitatzeko, erakunde publikoekin eta aurrezki kutxeekin harremanetan jarritz, dirua lortu zuten. 2005ean lizeotik jubilatuta eta bera jarri zuten Easoko presidente. Auditorioa egin zuten orduan.

20. Umeen danborradan eta Easo abesbatzan emakumeak ere bai

- **Erref:** DON-208/031
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:02:11. **Bukatu:** 01:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Easoko abesbatzan emakumeak sartzeko erabakia hartu zuten 2005ean. Kontatzen du Santo Tomas lizeoko ikasleek umeen danborradan neska zein mutikoek elkarrekin parte hartzeko erabakia hartu zutela hasieratik. Easo abesbatzan eginahala egin zuen abesbatza mistoa izan zedin. Neskatila gazteak formatuz joan dira eta orain helduen abesbatzan ari dira. Helduen, gazteen eta umeen abesbatzak dituzte orain.

21. Aita bertsolazlea eta seminarioan musikara zaletu

- **Erref:** DON-208/032
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:05:50. **Bukatu:** 01:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Aita oso bertsozalea zuen. Txirritaren bertsoen liburuxka oparitu zion aitari eta hark dena buruz ikasi. Seminarioan jaso zuen musikarekiko zaletasuna. Tipleetan bakarlaria izan zen. Gregorianoetan ere bere ibilbidea izan du.

22. Ikastolak publiko egin edo ez egin

- **Erref:** DON-208/035
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 01:12:07. **Bukatu:** 01:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Santo Tomas lizeoan hasi zenetik erretiroa hartu arte, inplikazio handia izan zuen ikastolan. Ikastolak publiko egiteko prozesu korapilotsua aipatzen du. Lege proiektu oso bat egin zuten ikastolen eredua oinarri hartuta, baina bertan behera geratu zen. 80. hamarkadan kontzertua lortu zuten. Buesaren legea atera eta gero, ikastolak zatitu egin ziren.

23. Santo Tomas lizeoan euskara batuaren alde hasieratik

- **Erref:** DON-208/036
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 01:16:35. **Bukatu:** 01:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Euskara batuaren sorrerarekin izan zituzten tirabirak kontatzen ditu. Euskaltzaindiak erabakitakoa onartu zuten hasieratik. Joerak aipatzen ditu.

24. Euskararekin irabazi

- **Erref:** DON-208/038
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:22:21. **Bukatu:** 01:24:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Donostian, ikastolek eta eskola publikoak ere euskaldundu dute. Gaur egun, euskara asko entzuten duela dio. Ume txikiei eta txakurrei bakarrik egiten zitzairen lehen euskaraz. Euskararekin galdu baino gehiago irabazi egin dutela konturatu izana aipatzen du.

25. Osabaren itzultzaile, erdaraz ez zekielako

- **Erref:** DON-208/039
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:24:59. **Bukatu:** 01:27:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bere aitaren anaiarekin harreman handia zuen, eta haren itzultzaile lanetan aritzen zen, osabak erdaraz ez zekielako. Eskolara ezin joan ahal izatearen pena zeukan osabak. Amak bazekien erdaraz eta aitak erdipurdi.

26. Euskara, izana

- **Erref:** DON-208/041
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:28:03. **Bukatu:** 01:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara beretzat gurasoen hizkuntza zen, arbasoengandik jasotako herentzia, herriaren hizkuntza; euskara beretzat izana da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com